

Ozar Izar

Bazen behin hiribildu ospetsu txist batean fraile bat bere kuskularekin eta beti arrastaka zeraman abituak, egunero korridoreetatik ikusi ahal zuen nola abitua jasota zebilen korrika eta presaka.

Komentuan iruditzen zitzairen beti galduta zegoela, baina ez, aita nagusiak non zegoen frailen burua bazekien.

Egunero 6etan hasten zuen bere lana meza batekin, gero komentu ondoan baratzen zati eder bat zaintzen zuen 8 t'erdia arte, beste fraileekin gosaltzen zuen eta gero komentua betetzen zen mutilekin. Eta orduan, ba orduan gure fraile galdutak mutilak elkarrekin kosmori buruz hitz egiten zuen. Arratsaldez, jan eta gero berriro geletan mutilekin eta arratsaldeko bukaeran otoiz edo errezo denboraldia, kapera, esku artean bere liburuarekin logurea ezin zuen kontrolatu eta batzuetan erdi lo geratzen zen; afarien bukaeran aita nagusiari bere baimena eskatzen zion eta, orduan bai, korrika eta presaka desagertzen zen korridoreetatik, baina nora joaten zen?

Komentuak bi dorre zeuzkan, kapera dorre bat zeukan eta bestea? Ba, bestea gure frailen amodioa gordetzen zuen, bai bere amodio eskutatuta, bere unibertso osoa baina, ez ezazue gaizki pentsa, gure frailen amodioa emakumearen ez zelako teleskopio bat baizik.

-Zergatik afarien bukaeran desagertzen zen korrika eta presaka?

-Zer egiten zuen gauez dorre hartan?

-Nondik zetorren gure frailea?

-Eta nondik zetorren kosmosetarako zaletasun handi hori?

Orain dela urte asko, Otsailaren hilabetean gauez ihauterietako giro barruan, zenbait berezia gertatu zen. Baina jendea ez zen konturatu. Zer gertatu zen? Ba, gau hartan “ozar-izar” egon zen eta, ozar-izarrekin batera gure frailea zerutik erori zen ere. Bai, Lurraren ikuskapeneko bidai bat egiten ari zenean bere espaziuntzia matxuratu zen eta erori zen.

Mailatuta, galduta eta bustita blai komentu ondoan. Altzania ibaiaren ertzean agertu zen.

Aita nagusia baratzean lan egiten zegoen eta ura biltzera joan zenean berarekin topatu zen. Aita nagusiak bere ondoan begiratu zuen eta inor ez zegoela konturatu zen, orduan bere abitua kendu zuen eta bidaiariari jantzi zion, gero arreta handiarekin, komentuaren dorrera eraman zuen.

Jendeak espaziuntzia aurkatu zuen baina bere tripulazioari inoiz ez zen agertu. Agian Burunda korronteak tripulazioaren gorpua eraman zuen. Denbora pasatu eta gero jendeari gertaera ahaztu zitzaion.

Oraindik gure fraileak bere dorrean ozar-izar biltzen jarraitzen du baina zertarako?

Eta aita nagusia zergatik isildu zen? Eta zergatik ezkutatu zuen frailea?

Zein zen komentuaren sekretua?

Egilea: Maite Argüelles Saracibar